

## Ispiluaren aurrean



Iñaki Antigüedad  
EHU-KO IRAKASLEA

**H**amaika ikasteko gara aldaketak gauzatzeko behar den prozesu sozio-politikoan. Hortaz, behatoki berrituak behar ditugu, bes-telako ikusmirak ere. Azken batez, geroa ez dago idatzita, gaurko apustuekin ari gara idazten. Ildo honetan hartzen dut Kataluniako *procés*-a ikasgai, hango prozesuak hemengoan sortzen duen gogoeta ikasbide. Ispiluaren aurrean biluztu gaitu hangoak, duguna agerian, gure kontakizun batzuk birpentsatzeko beharrean... Noizbait euskal errepublikarako bidean prozesu eragilea bermez ibiliko badugu.

Gizarte zibila eta politikoa uztarri berean ikusi ditugu, kaleak, instituzioak eta boto-ontziak norabide partekatuan, antisistemak instituzioak babesten, bertoko polizia barne! Udalak eta Parlamentua eskutik... Kontingentzia planak aukerari, inteligentzia kolektiboa... Politikaren teoria praktikara eramanda, han, zailtasun handiz izan arren.

Kataluniakoak politikaren eremua eta eredua, biak, birpentsatzeko motiboak ematen dizkigu, gure labirintoak utzi eta euskal errepublikarako norabide argi eta zabalean asmatuko badugu behintzat, hitz handietatik harago. *Procés* diote han, aldaketek sakonak direnean horixe eskatzen dutelako, prozesu luzea, zirkularra, gorabeheratsua, atzera-aurrerakoa eta konplexua. Urteak eman ditugu independentzia modu

sinplean irudikatzen, gure esku hutsean bailitza. Baina ez, Katalunia adibide, eta garen lekuan gara, atakan. Jakina, gure esku dagoena ez badugu egiten, akabo! Hortaz, aldekarrekoak aldebikoa hartu behar du helburuetariko bat, gerora Estatu onartua izan dadin gurea. Baina horretarako gizartean sinesgarri egin behar da bidea bera.

Katalunian autokritikatan daude, ikasbidean baitira. Horien arteko batek aparteko argia eman dit, hots, prozesuaz asko debatitu dela baina Estatu berriko sozio-ekonomiaz ezer gutxi. Gurean ere horren falta sumatzen dut, Euskal Estatu batek zer eskainiko lukeen gaurko autonomiak eskaini gabea. Azken finean, gehiengoak burujabetza sozialaren aldeko apustua egingo badu ongizatean aurrera egiteko bidean ikusten duela izango da, edo ez da apusturik. Eta horretan oraindik ez dugu asmatu.

Neure egiten ditut Kataluniatik kanpo den *president*-ak joan berritan esandako gako-hitzak prozesuaren erronka ulertzeko: Pazientzia, Pertseberantzia eta Perspektiba. Hirurak, eta malgutasun sendo batetik pragmatismo eraldatzailea ere, gurean gaurkoz nagusi den pragmatismo mugatzailearekin zerikusirik ez duena. Baina horretarako eragile berriak behar ditugu, direnak nahikoa izan ez; eta horretan, berriro, Katalunia erreferente. ■

## Amaia eta Iker



Leire Narbaiza  
Arizmendi  
IRAKASLEA  
@txargain

**A**maia Agirregabiria eta Iker Rokandio kartzelarako bidean dira. Amaia Pasaiaiko alkatea izan zen aurreko legealdian, eta Iker udal horretako legegaria. Espetxe zigorra ezarri diete emakume baten eta udaltzain biren artean gertatutako trafiko liskar batean bitartekari-lana egin zutelako. Urte bi, sei hilabete eta egun bateko kondena dute, eta zazpi urteko gaitasungabetzea. Hau guztiau prozesu kafkiar baten ostean.

Seguruenera, fede onez egin zutena ez da legezkoa izango, baina kezagarriena da horrelako kontu batengatik kartzelara joan behar izatea. Baina gure munduan dena konpontzen da espetxearekin. Uste dut egin zutena ilegala

bazen, badaudela beste modu batzuk "zigortzeko". Gaitasungabetzea zazpi urterako ez da zigorraldi makala, gero! Batez ere, administrazioko behargina izanda, lan barik geratzea esan nahi duelako.

Begitantzen zait kasu batzuetan errazegi ematen dela espetxeratze agindua. Betiere, horretan asko laguntzen du euskalduna edo katalana izateak. Edota behartsua, Les Mecaniciens-ek kantatzen zuten lez: "Lapur txikiak kastigatzeko nonahi badago kartzela, handiak hor ikusten ditut pasean dabiltzala".

Zuek ikusi nahi zaituztegu pasean Pasaian eta Eibarren. Lehenbailehen. ■